

KATALOGOAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Ohar honetan bildu ditugu Jose Antonio Aranaren bibliotekaren katalogoari buruzko ezaugarri nagusiak:

- 1) Guztira 5657 erreferentzia dira. Gehienak monografiak edo fitxa analitikoak (artikulu eta antzekoak) dira, baina badaude aldizkariak, mapak eta kartelak (guztiak digitalizatuta), musika inprimatua etab.
- 2) Gaiak, oro har, Humanitateen esparrukoak dira: historia, kultura, musika, erlijioa, zuzenbidea (foruak), literatura, artea... gehienetan Euskal Herriarekin, eta bereziki Gernikarekin, harremanetan daudenak. Jose Antonio Aranaren egiletza edo lankidetzaren dutenak 256 dira ; orobat, antzinakoak (1820 baino lehenagokoak), 65 ; euskaraz daudenak 2183 dira, hots, heren bat baino apur bat gehiago.
- 3) Katalogatzeko erabili ditugun araudiak ondokoak dira:

ISBD (*International Standard Bibliographic Description*)

<http://www.ifla.org/en/publications/international-standard-bibliographic-description>

MARC *Standards*

<http://www.loc.gov/marc/>

Azkue Bibliotekaren *Katalogazio erregelak*: Bilbo, 2005, In: *Euskera*, 51. libk. (2006, 2) ; 1109-1258 orr.

<http://www.euskaltzaindia.net/dok/erakundea/67630.pdf>

Euskaltzaindiaren *Arauk*

<http://www.euskaltzaindia.net/arauak>

- 4) Katalogo inprimatuari (hots, liburu honi) dagokionez, katalogoak EGILE-IZENBURUA ordena jarraitzen du eta erreferentziak zalantza gabe identifikatzeko behar beste datu bibliografiko daukate: egilea, izenburua, edizioa, inprimategi zigilua (non, nork eta noiz argitaratua), deskribapena (orrialdeak, ilustrazioak eta neurria) eta bilduma.

- 5) Liburua argitaratzen denean dagokion pdf-a Euskaltzaindiaren web gunean jarriko da baina, hortaz gain, web gune berean Azkue Bibliotekari dagokion atalean katalogo osoa dago 2008tik, erreferentzia osoak eskainiz
<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>

Azkue Biblioteka